

Zantigituarena

Ramon ETXEBARRIA

Oporrak hasi barri. Ikastolako lanak, eguneroko autobusa hartu beharra, etxeko lanak, ardura guzti honeek alde batera itzi eta beste mutil asko legez, Paulo, hamabost urte egin barri ebazana, bere oinetakoak jantzi, motxilea hartu eta hor joaku mendirantz eguna pasatzeko asmotan. Beste lagun batzuk ere beragaz joiazan. Txabi, Andoni bertsolariaren semea, Ander, urte batzuk lehenago herriko agintaria izan zanaren semea, Usategi baserriko Joxe, Txomin, inpernuko hauspo jotzailearen semea, albokariarena, e. a. ziran ibiltariok.

Aurrera joiazan, ikastolako kontuak abestuz, hango barriak alkarri esanez, txorien txirripitio, txirritxirrien txirri-txirri, ugelaxoen kroa-kroa eta beste hots askoren artean.

Eguraldia ederra zan. Ez egoan hotzik. Eguzkiak sua eukan. Lehenengo aurkitu eben gerizpetan hamarretakoa egitea erebahi eben.

Bakoitzak ekarri ebana atara eta danen artean jatea zala onena uste eben. Dana danena balitz legez, gaztaia, pernila, lukainkea, arrautza egosi, oiloki, txarriki eta daretarikoa agertzen zan han, hor, hemen eta jan ere halan, atara ahala.

Behingo baten jan eben. Zelan ez, eukien sasoi-az! Barriro ere zutundu ziran eta osasuna saltzen balebilz legez, hanka bata bestea baino arinago botatzen eben.

Sasoi ona, gorputz gaztea, janari hobeak, eguraldia ezin hobeak, aspaldikorik onena benetan ere. Mundua irunzteko prest egozan mutilok.

Beroaren beroaz noizean behin egarritu ere egiten ziran, baina ez egoan urik edaterik. Koka-kolea, limonadea eta horrelako edari erosiak edonondik agertzen ziran, edonoren motxilatik ataratzen ziran.

Ze pozik joi-azan! Egun osoa eurentzat. Zigarroren bat ere baegoan batenbaten poltsan. Nork ez dau erre honelako egun baten! Beti gustatzen da gizonkeritxuren bat egitea. Kontu handia eukiten eben zigarro mutxikinak ondo amatauta botatzen, egun horretan egoan sikateaz basoak erretzeko arrisku handia egoan eta. Honetaz entzuna entzunda urten eben gehienok etxetik.

Bide zabala alde batera itxi eta bide zior baten sartu ziran. Aldatz handi-agoa egoan baina bide laburr-agoa ere bai. Munduko aldatzik handienak ere ez ebazan bildurtuko gure mendigo-izaleok.

Ez ziran falta noizean behin subelandararen xirrit-hotsak, ezta otaren bat praka laburdun mutikoei bernak kintzeko. Hemen jausi, hor jaso, aurrera! Pitean-pitean euren arteko bromaren bat ere bai: kontuz! musker bat! Nahikoa zan honelako bat esatea batzuen buruko uleak arteztzeko edo beste batzuegan hotzikara siñua ikusteko.

Halakoren baten, pozen joiazanean beharbada, harri-
ren bat zapalduta edo laban eginda, edo ez dakigu zelan,
plast! non jausten dan gure Paulo!


Itxura baten ez eban golpe handirik hartu baina zo-
rabiotu egin zan. Bere senera etorri zanean, orkatilako
minaz kexatzen zan. Zan-bihorren bat! esan eban eureka-
riko batek. Begiratu eutsien eta urrututxo bat besterik
ez zan orkatila-orkatilan, odol negartxo batez gorrituta.

Entzun zan kraskadeaz zeozer apurtu ebala uste eben,
baina ez zirudian gauza handirik eukanik. Aurrera jarrai-
tzeko ere ez egozan era haretan eta etxera bihurtzea era-
bagi eben, onena izango zala ta.

Paulori orkatilea handitu egin jakon. Lepoan ekarri
behar zan herriraino. Norengana eroan? Herriko osagi-
learengana ala zuzen hazurretakoarengana? Zelan edo ha-
lan, taket biren artean estutu eutsien gogor hankea eta
beste biren gainean ipini eben Paulo eta etxerantz poz
guztiak bidean itxirik.

Herrira heldu baino lehenagoko baserri baten, etxe
aurrean egoan atsotxu batek ikusirik zer jazotzen jaken,
zantigituarena egitea ondo etorriko litzakiola esan eutsen.
Gazteok ez ekien zer zan hori baina edozer egiteko prest
egozan Paulo osatu eiten.

Hasi zan atsoa zelango edo halango sinuak egiten. Ha-
ri-xerrenda bat hartu eta min hartu eban inguruan ipiniz,
hiru aldiz zulotu eban batetik bestera, orratz-begian mo-
ropil bako hari bat sartuta ebala. Hiru aldiz zulotu ondo-
ren zan-bedar batzuk oriotan epeldu eta bedarraren zanak



JESSE
24

haragirantz adi zirala kurutze bat eginik itzi eutsazan bertan zapi bat gainekaldetik zala.

Mutilok, atsoak guzti hau egiten eban artean zur ta belarri egozan jazoten zana edo atsoak ebilena hausnartu ezinik. Zer ete zan han izkutatzen zana! Zertzuk ziran berba hareek?

«Zantigitu (zan tiratu)
zan urratu
zana bere lekuan sartu».

Hau esanaz nahaste kurutzeak egin eta igurtzi eta igurtzi eragion.

Atsoak kurutzeak zelan egin halan jarraitzen eutsien mutilok euren buruaz, Paulo osatu eiten indarka balebilz legez.

Atsotxuak bere zerok amaitu ebazanean, gazteon itaunak erantzuten nahikoa zeregin izan eban. Gauza arrunta zala esan eutsen. Zanen bat bere lekutik kanpo egoten dala eta barriro bere lekura eroatea besterik ez dala. Aizkolari, pelotari eta era guztietako kirolariengan sarritan jatzoten dala. Azkenez, hurrengo egunera arte ez kentzeko esan eutsen berak ipinitako bedarrok, mesederik izango ebalta ta.

Paulo geroago eta itxura txarragoa hartzen joian. Aurpegia kolorgatu egin jakon, hotzikarak ere etorri jakozan Ohean sartu eben eta itxaron egin behar.

Etxeko ta ingurukook arduraz beterik jarraitzen ebezan ordu luzeok. Bitartean, Paulo lotan legez egoan. Zirkirik ere ez eban egiten. Ha ere bazan zeozer!

Kanporik hara hain zauri txiki ta ezereza zana, zor-natu ta eltxarrak hasi ziran lanean. Handitua handitzen joian ta eltxarrak ugaritzen. Denpora gitxi barru ugari-tzen ziran, lehen bat zana orain bi eginda gelditzen zan eta erdibitze hau eten bakoa zan. Milakak ziran denpora gitxitan.


Laster hasi ziran gora ta behera, batera eta bestera, nor gehiagoka legez, inguruak lorrintzen, zikintzen, jaten, alkar jaten, hiltzen... Ikaragarritzko gerra bat sortu zan. Helburua, Pauloren gorputza eurenganatzea.

Gorputzaz jabetzeko, lehenengo odolaz jabetu behar eta hatan hasi ziran.

Eltxar arrotz madarikatuok ez ziran lehenengotan lar baina laster ugaritu ziran. Orduko milaka agertzen ziran. Lartxu gauza onerako. Eltxarron helburua bihotza ta ga-raunak eurenganatzea zan. Lan hau ez zan batere erreza izango.

Eltxarren ugaritzeaz eta gorputzalde batzuk eurenga-natzeaz, barri txarrak heldu jakezan Kirio Nagusiri ta Bi-hotzari. Barri txar honeek helduaz batera behingo baten zabaldu ziran agindu barriak gorputz guztiko kirio txikien artean. Bihotzak bere aldetik geroago ta taupada handiago, ta arinago ibiltzen hasi zan. Guda-deia egin zanetik, gu-dari gorriak eta zuriak, bata bestea baino arinago joiazan Orkatilalderantz. Ha zan hiltea! Hil eta hil! Alkar jan ere bai!

Gudari zuriak burukatzen eta hiltzen ziran artean, gudari gorriak janaria banandu ta banandu, inguruko ku-



tsdurea kendu, haizea garbitu..., ebilzan arnasarik hartze-ko asti barik.

Gelditu ere egin barik bialtzen zan zanaren barri Gu-daltegira. Kirio Nagusi, gual-nagusi jauna, arduraz be-terik eta bere bulegoan eten-bako urrutizkin-hotsa entzu-ten zan. Era guztietako barriak hartu eta ahal ziranik eta onenak bialdu. Berba gogorrak entzuten ziran sarritan, ez gudari alperrik egoalako, kirioak urduritzen hasi ziralako baino. Dana zan zaratea, dana gorpua, dana kutsadurea. Ti-roak batetik, aienak bestetik.

Gorputzeko odol-bide guztietako bide-kurutzeak ondo zaintzeko aginduta egoan. Bihotzak, denporea zelan aurre-ra, halan ugaritzen ebazan bere taupadak, gudariei hain-bat arinen bialtzeko janari, haize garbi, ordezeko gudari eta ahal zan guztia.

Gudu-tokiko barriak gorputzalde guztietara banatzen ziran, han ebilzan gudarien guraso, lagun, herritar eta bes-te hainbatek jakin eian hango barri. Irratiak, barri-emoi-leak, hara ta hona, ahal ziran leku guztietara barriak bo-ta nahian.

Gudariak indargetzen eta eltxarrak indartzen. Guda-ririk gehienak nekatuta egozan, ez eben aurrerapiderik ikusten, lurra jota egozan. Haize zikinik ez balego behin-tzat! —esaten eben—. Zoro-etxe bat irudian.

Kirio Nagusi, gual-nagusiaren bulegotik urtetzen eben aginduak ez ziran betetzen, gerrea egoan lekuraino ez ziran heltzen eta. Heltzen ziranak ere zatika, ulertezin heltzen ziran. Arerioak ostera, eltxarrak, geroago eta go-

gorrago, kementsuago, zenbat eta zikinkeri gehiago errez-
tasun gehiago ugaritzeko. Halan zan izan ere!

Bihotzak bere aldetik eginahalak egin eta gero, bere
burua arriskuan ikusi ebanean, eskutitz bat bialdu eutsan
Kirio Nagusiri. Zelan edo halan zeozer ulertzeko eran hel-
du zan. Hau inoan:

«Ego..a l..rian na.o / Ez.n dot g.hi.go / E.ka.u lag.n-
tz. ka..ora me.ed.z!».

Barri hau heldu zanean, eskola handiko jendea alkar-
tu zan berba ulertezin honeen esanahia jakiteko. Bene-
tan mingarriak, berbok!

Barri honen esanahia jakin besterik ez, Kirio Nagu-
siren agindua, azken agindua, zabaldu zan ahal izan zan
gorputzalde guztian. Agindu hau ere ostaz-ostaz heldu zan;
leku batzuetara heldu ere ez. Hauxe bakarrik ulertu eite-
kean:

«Sort. dait.la SUKAR-MINA gorput.. izard.t.n .as.
a.te!».

Ordu larriak benetan! Laster hasi ziran lanean bizi-
rik egozan gudari bakarrak, bero-indar guztiak alkartzen.

Izugarritzko hilerri bat sortu zan. Gudari gorriak go-
rriegi eta zuriak zuriegi! O₂ik ezin hartu eta CO₂ik ezin
bota. Hango ito beherra! Hango ke, gose, egarri, ezbehar,
aien, hil-behar, bizi nahi ta ezina!

Larritasun honek irauten eban artean, bero-indarren
ekintza kanporatzen zan, bekokitik zehar izardia sortuaz
hotzikaraz batera.



Izardiak zarra-zarra eragoion eta noizean behin uler-
tezinezko berba ganorabako batzuk ere entzuten ziran, su-
karrak eraginda beharbada.

Hau ikustea besterik ez zan behar laguntza eskatzen
zala jakiteko. Arin bai arin joan ziran Osaterrira lagun-
tza eske. Heldu ziran gudari laguntzaileak beirakizko on-
tzitxueta.

Eltxarrak konturatu ez eitezan uretan nahastuta sar-
tu behar eben laguntza eskatzen eben lurraldean. Halan
egin eben. Eltxarrak ere nekatuta egozan eta ura ikusi
ebenean pozez beterik edateñ hasi ziran. Zori txarra eu-
rentzat! Konturatu barik hainbat hil ziran urez asetuta.

Laguntzaile barriok oso indartsuak ziran benetan. Eu-
ren tanke, kañoi, eskopeta eta hegazkinez inguratu ebezan
eltxarrak gehienok.

Lehenengo, lurralderik garrantzitsuenak birreskura-
tzen hasi ziran. Bihotza barriro ere indartu zan. Eltxarrak
ez eben itxaroten honelakorik. Dana eurentzakotzat jotzen
eben.

Oraindik izerdia ez zan lar eskastu eta laguntza gehia-
go eskatu eben. Oraingoan, gudari barriok pozago etozan
lan gitxiago eukiko ebelako. Halan izan zan. Bigarren
txandako laguntzaileok oso motelduta aurkitu ebezan el-
txarrak eta behingo baten garbitu ebezan baztarrok.

Izerdia apurka apurka eskastzen joian. Lurraldea ze-
lan birreskuratu halan gitxitzen zan izerdia. Azkenengo
eltxarra hil arte gelditu ere ez ziran egin. Gudari zintzoak
eta jatorrak benetan!



Kirio Nagusi, geroago ta barri hobeak hartzen hasi zan. Ha poza! Bihotzak bere egoera onaren barri bota eutsan. Oraingoan oso ondo ulertzen zan. Ezaugarri ona zan. Kirio txiki arduradunen dei guztiak hartu arte ez zan jesarri bere aurkian Kirio Nagusi.

Osaterriko laguntzaileok euren lana amaitu ebenean, hain ondo egin ebelako, bertan gelditzeko esan eutsen Kirio Nagusik. Esan hau onartu eben, bertan jarraitu eien eurak nahi eben lurraldea eskeini eutsen.

Lurralde guztiak garbi, osansuntsu eta baketsu egozanean, eltxarrik bat bera ez egoanean bizirik, inguru guztia bake-aro baten sartu zanean, Paulok bere begiak zabaldu ebazan astiro-astiro, mundu barri batetik baltor legez eta bere lagunen irribarrea ikusi eban haren mosuetan.

Oraingoan, Paulok berbak ganoraz esaten ebazan, zentzunez. Benetako lagunak zirala ikusi eban. Bere amesetea kontatu eutsenean, jazo jakonaren barri eskatu eutsien.